

KONTZERTOUR kontzertu zirkuitua egingo da hirian

65 talde edo bakarlari baino gehiago ariko dira, musika estilo anitzekoak

Olatu Talka Jaialdian musikak leku garrantzitsua izango du aurten ere, izan ere, **Kontzertour kontzertu zirkuitua** egingo da. **Maiatzaren 19, 20 eta 21ean** hiri osoan zehar, kalean jarriko diren agertokietan, hainbat kontzertuz gozatzeko aukera egongo da. Aurtengo ekimenean, **65 talde edo bakarlari** baino gehiago ariko dira, **estilo anitzekoak**.

Aurtengo jaialdiko berrikuntzetako bat **Musikarekin Topo** ekimena izango da. **Maiatzaren 20an**, larunbat goizean, **Intxaurrendoko Sagastieder plazako Euskotreneko geltoki barruan**, Oso Fanek musika emanaldia eskainiko du **12:00etan**. Geltokira sartzen eta irteten direnek, topoaren zain dauden bitartean emanaldiaz zuzenean gozatzeko aukera izango dute, baina ez hori bakarrik, izan ere, **Amara eta Intxaurrendoko ibilbidean** ere musika emanaldia eskainiko du, **11:00etan**. Ekimen honekin Sagastiederren egongo den **berrerabilera merkatur**a bultzatu eta girotu nahi du Olatu Talkak.

Beste gune garrantzitsuetako bat **Basoka** izango da, aurreko urteetan bezala **Miramongo basoa** kontzertu gune bilakatuko da Stringedwood Musika Elkartearen eskutik. **Maiatzak 20an**, larunbatean, izango da jarduera eta **arratsaldean hasi** eta gau partean amaituko da.

Beste hiru gune nagusi izango dira: Kaia, Kursaal eta Sagues. **Kursaaleko** Kubo Kutxa ondoan, **ostiralean** eta **larunbatean** kontzertuak izango dira.

Kaian bi gunetan izango da Kontzertour.: batetik, Jaialdirako ezarriko den **agertoki nagusian**, hiru egunetan zehar hainbat estilotako talde eta bakarlariak ikusi eta entzuteko aukera izango da eta **Moilaberrian, igandean**, beste kontzertu batzuk antolatu dira.

Izen-ematea ireki da soinu probak egiten ikasteko tailerrean

Saguesen, ostiral eta larunbat gauean hainbat kontzertu eta estilo desberdinetako taldeek emanaldiak izango dituzte eta larunbat arratsaldean **ekitaldi berezi bat** izango da: **Red Ribbon Rock Eskola**. Bertan 12:00etatik 14:00etara mahai-inguru bat izango da: musika munduko hainbat lagun elkartuko dira eta kontzertuen antolakuntzaz eta *Do It Yourself* filosofiari buruz hitz egingo dute, musikaren autogestioa eta musika industriaren alternatiba ardatz hartuta.

Horrez gain, 15:00etatik 17:00etara **soinu proba didaktikoa** izango da, **ekoizpenaren eta soinuaren oinarriko kontzeptuak** azalduko dira eta **benetako soinu proba bat** egingo da bi musika talderekin. Ekimen honetarako **izen-ematea beharrezkoa da**, eta **Olatu Talka webgunearen** bidez egin behar da.